

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA  
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN  
NEREA YEREGUI BALDA  
IGOR OTERMIN EGUIA  
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA  
ANDER PRADOS OTAMENDI  
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

### **IDAZKARIA**

Joanes Aleman Olo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko abuztuaren 27an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

## **1. 2024-07-30EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA**

Deialdiarekin batera banatu den 2024-07-30eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

## **2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:**

### **1. Manantiales Betelu SA**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko uztailaren 24ean, 41/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Manantiales Betelu SAri baimena ematea Beteluko 2. poligonoko 69. partzelatik 4.213,37 metro koadro bereizteko, 11.731,93 metro karratuko jatorrizko azalerarekin, ondoren Beteluko Udalarri lagatzeko, finka mugakidearen jabea baita.

## **3. JASOTAKO IDATZIAK**

### **1.- Zigari Elkarteak**

Zigari Elkartearen elkartearen aurrealdea berrantolatzen ari da. Berrantolaketa hori dela eta, dauden bi errefuxa edukiontzia aurrealdetik kentzea eta atzealdera eramatea proposatu dute aparkatzeko tokia kentzen baitute eta itxura eta usaina ere kontuan harturik.

Hau dena ikusita, udalbatzak aho batez zera onartu du:

Bi edukiontzia tokiz aldatu direla jakinaraztea. Manantiales Betelu inguruko aparkalekura eraman dira elkartearen atzealdean ez baitago jartzerik.

## **2.- Diegaby Hostal SL**

Estela Velizek eta Ufredo Morak Diegaby Hostal SL-ren izenean, taberna 2024ko urriaren 14tik 17ra (biak barne) bitartean ixteko eskaera egin dute orain artean ez baitute inongo deskantsurik egin.

Hau dena ikusita, udalbatzak aho batez zera onartu du:

Eskatutako itxiera egunak onartzea.

## **4. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO**

### **1.- Herri mendiaren aprobetxamenduaren enkante publikoaren prozedura**

Udalbatzari Lulota, Kastabal eta Aitzondo parajeetako mendi aprobetxamenduaren enkante publikoaren prozeduraren egoera jakinarazi zaio. Enkantean Basalan Arrospide SL enpresak aurkeztu zuen eskaintzarik hoberena, 53.750,00 euroko eskaintza egin ondoren.

## **5. FAKTUREN ONESPENA**

Ado Urban Furniture SL	Piboteak	158,51 €
Animsa	F.HWA	291,64 €
Iberdrola	Urberoa uztaila	6,94 €
I-Sai Accesos y Presencia SL	F. Indianoetxeako ate automatikoa	3.660,81 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa uztaila	423,29 €
Urzubi	A 815	433,39 €
Baiza Motor	Desbrozadoreen erosketa	1.774,29 €
Copytec	F. frontoiko kartelak	14 €
Correos	Kontadoreen irakurketaren banaketa	20 €
Tindu margoak	Materiala	136,43 €
Beteluko lagunartea	Festetako afariko edariak	352 €
Codisna	F. 24365	39,93 €
Angelines Carrillo	F. 14/2024	90 €
Wikai	F, uztailleko kontsumoa	112,10 €

IDM Life Saving Equipment	F. uztaila	128,84 €
Venus Campos Walsh	F. DFA-31 uztaila	2.833,41 €
Miguel Ramon Olano	F. 45/2024	1.080,07 €
Miguel Ramon Olano	F. 43/2024	1.260,82 €
Miguel Ramon Olano	F. 44/2024	772,27 €
Miguel Ramon Olano	F. 47/2024	287,38 €
Goiener	F. Udaletxea uztaila	391,35 €
Goiener	F. Eskola uztaila	538,72 €
Aralar Udal musika Eskola	F. Aurrekontuaren %25	3.057,94 €
IDM Life Saving Equipment	F. 181 urtarrila	122,71 €
Iberdrola	Udaleko pisua uztaila	10,12 €
Lorenzo Otamendi Artola	Uztaileko mugikortasuna	115,80 €
Gizarte Zerbitzuak	Iturraskarri 2024 kuota	1.500 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa uztaila	31,71 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 76	532,40 €
Serlimpia	F. 240321	285,56 €
Repsol	F. 005917/Y/24/00015	16,71 €
Calderería Elostá	F. 052/2024	266,20 €
Erel sl	Kopiak+ plastifikatu	90 €
Brico depot	Pintura	59,90 €
Hortalizas Etxeberria	Landareak	22 €
Ofico	F. abuztuko aholkularitza	99,46 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa uztaila	17,64 €
Codisna	Hipoclorito erosketa	239,58 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. Taxi jaia Leitza	129,67 €
Diegaby Hostal SL	Ekaineko gosari/bazkariak	500,30 €
<b>SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA</b>		
Kide Aholkularitza	F.uztaileko aholkularitza	379,34 €
Maite Garcia Satrustegui	Uztaileko bazkariak	538,20 €
	<b>DENETARA:</b>	<b>19.763,49 €</b>

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuen inguruko akordioak sartzeko eskatu du: "Beteluko lagunarteari dirulaguntza, festetarako karpagatik".

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: Beteluko Lagunartearen batzordean aldaketak egin baino lehen, festetako kontuak bukatu behar dira eta horretarako funtsezkoa da festetan jarritako karparen inguruko finantzaketa argitzea.

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guziten aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

## **6. BETELUKO LAGUNARTEARI DIRULAGUNTZA, FESTETARAKO KARPAGATIK.**

Kondizio meteorologikoak zirela medio, Beteluko lagunarteak karpa bat jarri behar izan zuen Beteluko festetan.

Hau horrela eta ezohiko gastu bat dela eta herriko festak ospatzeko beharrezkoa izan zela kontuan hartuta, udalbatzak aho batez onartu du:

Lehenengoa: Beteluko Lagunarteari 2.000 euroko dirulaguntza onartzea.

Bigarrena: Horretarako behar den aurrekontu aldaketa bideratzea. Dirulaguntza ematea hortaz, aldaketa egiteko behar den finantzaketa nahikoa izatera baldintzatua dago.

## **7. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.